

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea zerga errolda eta bilketa egiteko aldia, Larrabea urbanizazioko etxeko edateko urarena eta saneamenduarena, 2016ko hirugarren hiruhilekoari dagokiona

Jendaurrean dago hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren 2016ko hirugarren hiruhilekoko zerga errolda, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik ez aurkezten ez bada, errolda behin betiko onarturik geratuko da.

Ordainagiriak 2016ko urriaren 14tik abenduaren 14ra bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko modua

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2016ko abenduaren 9an.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (abisuarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (MiPago).

Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Adierazitako epea bukatutakoan, ordaindu ez diren kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, ezartzen duen erreklarguarekin.

Legutio, 2016ko urriaren 10a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA